

## PLAZAOLAKO BIDE BERDEA LASARTE-ORIAN BURUTZEA

Plazaolako bide berdea mugikortasun jasangarriko, turismoko eta garapen sozioekonomiko eta jasangarriko funtsezko elementua da Buruntzaldeko gure eskualderako, eta zehazki Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoainerako, eta baita Gipuzkoa osorako ere; edo hala izango litzateke, bai, Iruña eta Donostiaren arteko harreman-bidea artikulatzea ahalbidetzen duen azken katebegia ixteko gai bagina, Lasarte-Orian dagoen eta orain moztuta dagoen katebegi bat: Oztarango tunela edo “*Champiñonero*”, oinezkoentzako eta bizikleta bidezko konexioa eragozten duena.

Donostia eta Iruña lotzen zituen Plazaolako trenbide zaharraren trazatua, Lasarte-Orian hasten zen trenbide propio gisa, “Vascongados” (gaur egungo Eusko Tren) trenbidetik ibili ondoren, eta Lasarte-Oriatik Iruñerainoko ibilbidea bere bidetik egiten zuen, Urnieta, Andoain eta Leitzarain eta Plazaolatik igaroz (Plazaolatik hartu zuen izena). Plazaolako trazadura zaharra bide berde gisa berreskuratu da Andoaindik aurrera, eta Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen ditu, Iruñerriraino, eta laster Iruñeraino.

Plazaolako Buruntzaldeko zatia, Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoain artekoa, osatu gabe dago eta gainditu beharreko ebaketa dauka: Oztarango tunela edo *Champiñonero*, itxia eta jabetza pribatukoa, Buruntzaldeko hiru herrien arteko oinezkoentzako eta bizikletazko konexioa eta Donostia eta Iruña arteko bidea egitea eragozten duena.

Lasarte-Oriako Plazaolako bide berdea izan daitekeena Urnietan hasten da, herrian, Oztaran tunelaren sarrerara iritsi arte. Tunela Azkorte bidearen ibilbidearen zati da, Urnieta eta Lasarte-Oria lotzen dituen, eta Lasarte-Orian berreskuratutako Plazaola bide zaharrarekin lotzen da. Bideak Buenos Aires eta Goiegi - Atsobakar biribilgunetik jarraitzen du, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planeko (Donostia-Mutriku) 2. ibilbidearekin lotura eginez.

Lasarte-Oriako Plazaolako bide berdea proiektu estrategikoa da, COVID delakoaren garaian egiaztatu ahal izan dugun bezala, Lasarte-Oriako pertsona askok ezagutu baitute bide garrantzitsu hori. Kirolariek eta familiek ingurune natural horretaz gozatu ahal izan dute, jabetza pribatuko eta itxitako *Champiñonero* tunelera iritsi arte. Iraganean, behin eta berriz saiakerak izan dira, negoziazioak, tunel hori eskuratzeko, baina –zoritxarrez- ez ziren ondo atera.

EAJ-PNVren udal taldearen ustez, orain da unea Lasarte-Oria eta Andoain arteko ibilbidea osatzeko horretarako tunela erosi eta ibilbide osoa berreskuratuz; hori onuragarria da Buruntzaldea eskualdearentzat eta Gipuzkoa osoarentzat.

Beraz, EAJ-PNV gure udal taldetik honako hau eskatzen dugu:

- Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziatu eta adostea, Foru Aldundiak titulartasun pribatuko Oztarango tunela – *Champiñonero* tunela- eros dezan, eta, ondoren, erabilera berrirako egokitzea, beharrezko berrikuntzekin; hori guztia, Gipuzkoako lurraldean planteatzen ari diren mugikortasun iraunkorreko planen baitan.
- Lasarte-Oriako Udalak etorkizunean azterketa bat egin dezala Plazaola inguruko lursailak erosteko eta etorkizun hurbilean Plazaolako Parke Berdea, Lasarte-Oriarako birika, sortu ahal izateko.